



Espedientea 2024IORD0003

Saila	Kultura, Festak eta Gazteria
Gaia	Oporraldietako aisialdi eskaintza arautzeko ordenantza

<p>AURRETIAZKO GALDEKETA PUBLIKOAREN IZAPIDEA, TOLOSAKO OPORRALDIETAKO AISIALDI ESKAINTZA ARAUTZEKO ORDENANTZA EGITEKO.</p> <p>39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, VI. Tituluan arautzen ditu administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala, eta berritasun batzuk ditu aurreko erregelazioaren aldean, helburu nagusia izanik herritarren parte-hartzea areagotzea arauak lantzeko prozeduretan.</p> <p>Hartara, 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontsulta publikoa egin behar da araudi-proiektu bat prestatu aurretik. Honako hau dio aipatutako artikulua:</p> <p>133. artikulua. Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.</p> <p>1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:</p> <p>A) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak. B) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den. C) Arauaren helburuak.</p>	<p>TRÁMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA PARA LA ELABORACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LA OFERTA DE OCIO DURANTE LAS VACACIONES DE TOLOSA.</p> <p>La ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En el título VI. regula la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria de las Administraciones Públicas, con algunas novedades respecto a la regulación anterior, con el objetivo principal de incrementar la participación ciudadana en los procedimientos de elaboración de normas.</p> <p>Así, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, debe realizarse una consulta pública previa a la elaboración de un proyecto normativo. El citado artículo dice lo siguiente: Artículo 133. Participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de normas y reglamentos con rango de ley.</p> <p>1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o reglamento, se tramitará una consulta pública a través de la página web de la administración competente, en la que se recogerá la opinión de los sujetos y organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma sobre los siguientes puntos:</p> <p>A) Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa. B) La necesidad y oportunidad de su aprobación. C) Objetivos de la norma.</p>
---	--

ESKUaf46b64b-0778-4160-985f-47ec536b7e20



<p>D)Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.</p> <p>Oraingo honetan, Tolosako Udalaren asmoa da Udalak antolatutako oporraldietako aisialdi eskaintza martxan jartzea, eta hori arautuko duen Ordenantza egitea. Legeak ezarritakoa betez, alde aurreko kontsulta publikoa egingo du, Ordenantza idatzi eta onartu aurretik.</p> <p>Herritarrek, erakundeek eta elkarteek parte hartu ahal izango dute, hala iritziz gero, eta ekarpenak egin, Tolosako Udalaren Erregistroan aurkeztuta; herritar fisikoen kasuan, aurrez aurre edo modu telematikoa, eta pertsona juridikoen kasuan, modu telematikoa. Horretarako, 20 egun NATURAL izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.</p> <p>EKIMENAREN BITARTEZ ESKAINI NAHI DEN ZERBITZUA</p> <p>Euskadiko Gazteriaren 2/2022 Legeak ezartzen duenez, udalerriek dute gazteentzako aisialdiko jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko ardura, udalekuak barne. Lege hau gazte-politiken barruan sartzen da. Politika horien helburua gazteen garapen integrala sustatzea da, hezkuntza-, jolas- eta kultura-jardueren bidez. Udalerriek ziurtatu behar dute jarduera horiek indarrean dauden araudien arabera egiten direla, eta gazteen sarbide-berdintasuna eta parte-hartze inklusiboa bermatzen dutela.</p>	<p>D) Posibles alternativas regulatorias y no regulatorias.</p> <p>En esta ocasión, la intención del Ayuntamiento de Tolosa es poner en marcha la oferta de ocio vacacional organizada por el Consistorio y elaborar la Ordenanza que lo regule. En cumplimiento de lo establecido en la Ley, realizará la consulta pública previa a la redacción y aprobación de la Ordenanza.</p> <p>Podrán participar ciudadanos, entidades y asociaciones, si así lo estiman, y realizar aportaciones, presentadas en el Registro del Ayuntamiento de Tolosa; en el caso de ciudadanos físicos, de forma presencial o telemática, y en el caso de personas jurídicas, de forma telemática. A tal efecto, dispondrán de 20 días naturales a contar desde el siguiente a la publicación del anuncio.</p> <p>SERVICIO QUE SE PRETENDE PRESTAR A TRAVÉS DE LA INICIATIVA</p> <p>La Ley 2/2022 de Juventud de Euskadi establece que los municipios son los responsables de organizar y gestionar las actividades de tiempo libre para las personas jóvenes, incluidas las colonias de verano. Esta ley forma parte de las políticas de juventud. El objetivo de estas políticas es promover el desarrollo integral de las personas jóvenes a través de actividades educativas, lúdicas y culturales. Los municipios deben asegurarse de que estas actividades se realizan de acuerdo a las normativas vigentes y que garantizan la igualdad de acceso y la participación inclusiva de la población juvenil..</p>
---	--



<p>Tolosako haur, nerabe eta gazteentzat aisialdi eskaintza, neurri handi batean, pribatua da: besteak beste, ikastetxeek, kirol taldeek eta aisialdi taldeek antolatzen dute. Honek, baldintzatu egiten du batetik, herriko zenbait haur, nerabe eta gazteen partehartzea egun ematen den aisialdi eskaintzan eta bestetik, herriko haur, nerabe eta gazteen arteko harremanak garatzea.</p> <p>Bestetik, Tolosako aurrekontu partehartzaileetan, Udalak Udalekuak antolatzeko proposamena izan zen bozkatuenetako bat.</p> <p>Era berean, behar bereziak dituzten haur eta gazteak bereziki kontuan hartuko dira, eta hauei egokitutako eskaintza osatuko da, izan ere, hainbat eskaera jaso izan dira arlo horretan gabezia handia dagoela azpimarratzen.</p> <p>Gai hau hezkuntza formaleko eragile ezberdinekin landu da, oporraldietako aisialdi eskaintza Udaletik antolatzearen beharra argudiatu da, eta gaiaren inguruan duten ikuspegia ezagutu da, ordenantza osatzerakoan kontuan izateko.</p> <p>Aurrekoak kontuan hartuta, haur, nerabe eta gazteentzat aisialdi hezitzaile eskaintza publiko eta inklusiboa osatu nahi da. Aukera berdintasuna sustatu eta maila ekonomikoaren arabera diskriminazio oro saihestuko duena, prezio publikoen eta murrizketen bitartez.</p> <p>ORDENANTZA ONESTEAREN BEHARREZKOTASUNA ETA EGOKITASUNA</p> <p>Tolosako Udalak uste du ekimen egokia dela udalerrian aisialdiaren arloan dauden</p>	<p>La oferta de tiempo libre para niños, niñas, adolescentes y personas jóvenes de Tolosa es, en gran medida, privada: la organizan, entre otros, centros escolares, clubes deportivos y grupos de tiempo libre. Esto condiciona, por un lado, la participación de algunos niños y niñas, adolescentes y jóvenes de la localidad en la oferta de ocio que se ofrece actualmente y, por otro, el desarrollo de las relaciones entre los niños, las niñas, adolescentes y jóvenes de la localidad.</p> <p>Por otro lado, en los presupuestos participativos de Tolosa, una de las propuestas más votadas fue la de organizar colonias por parte del Ayuntamiento.</p> <p>Asimismo, se tendrá especialmente en cuenta a los niños, niñas y jóvenes con necesidades especiales y se completará la oferta adaptada a los mismos, ya que se han recibido numerosas solicitudes sobre la existencia de una gran carencia en este ámbito.</p> <p>Este tema se ha tratado con diferentes agentes de la educación formal, se ha argumentado la necesidad de organizar la oferta de ocio vacacional desde el Ayuntamiento y se ha conocido su visión sobre el tema para tenerlo en cuenta a la hora de elaborar la ordenanza.</p> <p>Teniendo en cuenta los anteriores, se pretende completar una oferta educativa de tiempo libre pública e inclusiva para niños, adolescentes y jóvenes. Que promueva la igualdad de oportunidades y evite toda discriminación en función del nivel económico, mediante precios públicos y reducciones.</p> <p>NECESIDAD E IDONEIDAD DE LA APROBACIÓN DE LA ORDENANZA</p>
--	---



TOLOSAKO
UDALA

<p>erronkei erantzuteko. Oporraldietako aisialdi eskaintza aurrera eramateko, beharrezkoa da dagokion ordenantza egitea.</p>	<p>El Ayuntamiento de Tolosa considera que es una iniciativa adecuada para dar respuesta a los retos que existen en el municipio en materia de ocio. Para llevar a cabo la oferta de ocio vacacional es necesaria la elaboración de la correspondiente ordenanza.</p>
<p>ALDAKETAREN HELBURUA</p> <p>Tolosako Udaletik oporraldietako aisialdi-eskaintza sortzea da. Era berean eskaintza hau, Tolosako herritar orori zuzendua dago, eta aisialdi eskaintzan aukera berdintasuna bermatu nahi da prezio publikoekin, familia guztiek kalitatezko aisialdirako aukera berdinak izan ditzaten. Honetaz guztiaz gain, familiei kontziliazioan laguntzeko neurria da, baita ere.</p>	<p>OBJETO DE LA MODIFICACIÓN</p> <p>Se trata de crear una oferta de ocio vacacional desde el Ayuntamiento de Tolosa. Asimismo, esta oferta está dirigida a toda la ciudadanía de Tolosa, y se pretende garantizar la igualdad de oportunidades en la oferta de ocio. con precios públicos para que todas las familias tengan las mismas oportunidades de ocio y de calidad. Además de todo esto, también es una medida para ayudar a las familias en el tema de la conciliación.</p>
<p>IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ- ERREGULATZAILEAK</p> <p>Ez da ikusi sumatu diren premiei erantzuteko bestelako aukera bideragarriak.</p> <p>Tolosan, 2024ko azaroaren 6an</p> <p>Aitor Agirresarobe Murgi Gazteria azpisaileko zinegotzi delegatua</p>	<p>OTRAS OPCIONES REGULATORIAS Y NO REGULATORIAS POSIBLES</p> <p>No se han visto alternativas viables para atender las necesidades detectadas.</p> <p>Tolosa, 6 de noviembre de 2024</p> <p>Aitor Agirresarobe Murgi Concejal delegado del subárea de Juventud</p>



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IORD0003-Aurretizko galdeketa/Exposicion publica (TOLOSAKO UDALA)